



ALKATETZAREN EBAZPENA

GAIA: TXONTA AUZOKO BIZITEGI-ERAIKINEN BIRGAITZE ERAGINKORRERAKO JABEKIDEEN ERKIDEGOENTZAKO DIRULAGUNTZA OSAGARRIAK ETA KONPENTSATZAILEAK GAUZATZEKO ETA JUSTIFIKATZEKO EPEA LUZATZEKO PROPOSAMENA, BANAKAKO EBALUAZIO ERREGIMENEAN

IKUSIRIK aipatutako gaiari buruz Elena Juaristik prestatu duen proposamena, non justifikatzen baitu aipatu goiburuan dirulaguntza justifikatzeko eta obrak egiteko gehieneko epea luzatzea.

KONTUAN HARTUZ kasu honetan dirulaguntza gauzatzeko eta justifikatzeko epea luzatzeko baldintzak ematen direla, hori arautzen duen hitzarmeneko 14. klausulak eskatzen duen bezala.

Eta dirulaguntzaren onuradunek dirulaguntzaren xedea betetzen dutela eta jasotako dirua erabiltzen dutela behar bezala eta epean gauzatzeko eta justifikatzeko aukera izan dezaten.

EBATZI DUT:

ALDATZEA banakako ebaluazioaren arabidean jabe-kide-erkidegoei dirulaguntza konpentsatzaileak eta osagarriak emateko, Txonta auzoan bizitegi-erakinetan birgaitze eraginkorra egiteko dirulaguntzan oinarrien 14. puntua honela geratuko da:

RESOLUCION DE ALCALDIA

ASUNTO: PROPUESTA DE AMPLIACIÓN DEL PLAZO DE EJECUCIÓN Y DE JUSTIFICACIÓN DE SUBVENCIONES COMPENSATORIAS Y COMPLEMENTARIAS A COMUNIDADES DE PROPIETARIOS/AS PARA LA REHABILITACIÓN EFICIENTE DE EDIFICIOS RESIDENCIALES EN EL BARRIO DE TXONTA, EN REGIMEN DE EVALUACIÓN INDIVIDUALIZADA

VISTA la propuesta que sobre el asunto de referencia ha redactado Elena Juaristi, en la que justifica la ampliación del plazo de ejecución y de justificación de la subvención en la convocatoria en la cabecera indicada

CONSIDERANDO que en la caso presente se dan las condiciones para ampliar el plazo de ejecución y de justificación de la subvención, tal y como requiere la cláusula 14 del convenio que la regula.

Y con el fin de facilitar que las personas beneficiarias de la subvención puedan ejecutar y justificar debidamente y en plazo el cumplimiento de la finalidad para la que se concedió la subvención y la aplicación de los fondos percibidos

RESUELVO

MODIFICAR el punto 14 de las Bases y convocatoria para la concesión de subvenciones compensatorias y complementarias a comunidades de propietarios/as para la rehabilitación eficiente de edificios residenciales en el barrio de Txonta, en régimen de evaluación individualizada, que quedará redactado de la siguiente manera:

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de verificación (CSV): **b8bffb9763b1bcc2e2aca3884a0b1577352ead4b**
Erreferentzia-zenbakia / N. Referencia: **AL3000-000939/2024**
<https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do>

Jatorrizko dokumentuaren sinadurak / Documento original firmado por:

JON IRAOLA IRIONDO (Alkate-udalburua / Alcalde-Presidente)

Data / A día:

28/06/2024 10:46:41



Hamalagarrena.- Onuradunak duen epea eta modua dirulaguntza emateko helburua bete duela justifikatzeko.

Oinarri hauetan aurreikusitako dirulaguntzak Alkatezaren ebazpen bidez ordainduko dira, instrukzio-organoak proposatuta, eskutatuko egiaztagiriak aurkeztu eta, hala badagokio, egiaztatu ondoren.

Dirulaguntzen ordainketa prozedura honen arabera egingo da:

a) Lehenengo ordainketa, dirulaguntzaren zenbatekoaren % 45koa, ordaintzeko eskabidea elektronikoki aurkeztu ondoren egingo da, Udalaren web-orriko (www.eibar.eus) DOKUMENTAZIOA AURKEZTEA izapidearen bidez.

Honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- Higiezineko etxebizitza guztien jabariaren xedapen-mugaketaren erregistro-idazpena Jabetza Erregistroan inskribatu izanaren egiaztagiria (egiaztagiri guztiak aurkezten ez badira, 12. artikuluan ezarritakoari jarraituko zaio).

b) Gainerako zenbatekoa justifikazio-kontua egiaztatu eta onartu ondoren ordainduko da. Justifikatzeko modua justifikazio-kontua modalitatearen bidez egingo da; elektronikoki aurkeztuko da www.eibar.eus udal webguneko DOKUMENTAZIOA AURKEZTEA izapidearen bidez; eta honako agiri hauek izango ditu:

- Obraren exekuzio-fakturak, aurretik aurkeztu ez direnak.

- Obren amaierako ziurtagiria, haien zuzendari fakultatiboak emana eta sinatua.

- Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste diru-sarrera edo dirulaguntza batzuen xehetasuna jasotzen duen ziurtagiria edo adierazpen arduratsua, zenbatekoak eta jatorria adierazita,

Decimocuarto: Pago y plazo y forma de justificación por parte de el/la beneficiario/a del cumplimiento de la finalidad para la que se concedió la subvención.

El abono de estas subvenciones se hará efectivo mediante resolución de alcaldía a propuesta del órgano instructor tras la presentación, y en su caso comprobación, de la documentación justificativa exigida.

El pago de las subvenciones se realizará de acuerdo a la siguiente secuencia:

a) Un primer pago del 45 % del importe de la subvención se abonará tras la presentación electrónicamente a través del trámite PRESENTACIÓN DE DOCUMENTACIÓN de la página web municipal, www.eibar.eus, de la siguiente documentación:

- Justificante de la inscripción en el Registro de la Propiedad del asiento registral de limitación dispositiva del dominio de todas las viviendas del inmueble. (en caso de no presentarse todos los justificantes se procederá de acuerdo a lo establecido en el artículo 12).

b) El importe restante se abonará previa comprobación y aprobación de la cuenta justificativa. La forma de justificación será mediante cuenta justificativa, debiendo presentarse electrónicamente a través del trámite PRESENTACIÓN DE DOCUMENTACIÓN de la página web municipal, www.eibar.eus la siguiente documentación:

- Facturas de ejecución de obra que no hayan sido ya presentadas con anterioridad.

- Certificado final de las obras emitido y firmado por el director facultativo de éstas.

- Certificado o declaración responsable que incluya detalle de otros ingresos o subvenciones que hayan financiado la actividad subvencionada con indicación de sus importes y

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de verificación (CSV): **b8bffb9763b1bcc2e2aca3884a0b1577352ead4b**
Erreferentzia-zenbakia / N. Referencia: **AL3000-000939/2024**
<https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do>

Jatorrizko dokumentuaren sinadurak / Documento original firmado por:

JON IRAOLA IRIONDO (Alkate-udalburua / Alcalde-Presidente)

Data / A día:

28/06/2024 10:46:41



Erkidegoko presidenteak edo, hala badagokio, idazkariak edo administrazioa daraman pertsonak emana.

- Oinarrizko proiektuaren edota Egikaritze proiektuen fakturak, obren zuzendaritza fakultatiboarenak eta egindako beste lan tekniko guztienak.

Obrak egiteko gehieneko epea 2024ko abenduaren 31n amaituko da.

Dirulaguntzaren helburua bete dela eta jasotako funtsak aplikatu direla justifikatzeko epea (onuradunek egindakoa) 2025eko otsailaren 28an amaituko da.

Eibarren,

procedencia expedido por la persona que ostente la Presidencia o, en su caso, la Secretaría o la -Administración de la Comunidad.

- Facturas de los proyectos Básico y/o de Ejecución, de la dirección facultativa de las obras y de cuantos otros trabajos técnicos se hubieran realizado.

El plazo máximo de ejecución de las obras no podrá superar la fecha de 31 de diciembre de 2024.

El plazo de justificación (por parte de las personas beneficiarias) del cumplimiento de la finalidad para la que se concedió la subvención y de la aplicación de los fondos percibidos no podrá superar la fecha de 28 de febrero de 2025.

En Eibar,

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de verificación (CSV): **b8bffb9763b1bcc2e2aca3884a0b1577352ead4b**
Erreferentzia-zenbakia / N. Referencia: **AL3000-000939/2024**
<https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do>

Jatorrizko dokumentuaren sinadurak / Documento original firmado por:

Data / A día:

JON IRAOLA IRIONDO (Alkate-udalburua / Alcalde-Presidente)

28/06/2024 10:46:41

